



AZKEN ALDIA


1.- TRENA

Gasteiztik Donostirainoko ibilbidea betetzen duen trenak lehenengo mailako eserleku bakoitzeko bigarren mailako bi ditu. Gaur, bigarren mailako $\%25$ a eta lehenengo mailako $\%40$ a hutsik daude. Gainera, lehenengo mailan sei bidaiaritik bat emakumezkoa den bitartean, bigarren mailan hiru bidaiaritik bat baino ez da emakumezkoa.

- Guztira, zein da hutsik dauden lekuen portzentaia?
- Emakumezkoen kopurua bakarrik kontuan hartuta, zer portzentaia dagokio lehenengo mailari eta zer portzentaia bigarrenari?
- Gizonezkoen kopurua bakarrik kontuan hartuta, zer portzentaia dagokio lehenengo mailari eta zer portzentaia bigarrenari?

2.- ROBOTA

Irudian ikus daitekeen prisma itxurako eraikin batean laborategi biologikoak daude. Eraikinean fatxadatik mugitu egiten den robot bat dute, laborategietatik arriskutsuak izan daitezkeen gas-ihesak kanpora ateratzen diren zuloak estaltzea bere betebeharra delarik. Bat-batean, alarmak jotzen du...Zein da robotak bete behar duen distantziarik txikiena (minimoa) ondorengo kasu hauetan?:



- Robota P erpinean dagoela gas-ihesa A puntuan gertatu da (A puntuaren kokapen zehatza: fatxada erdian, lurretik 15 metrora).
- Robota P erpinean dagoela gas-ihesa aurkako erpina den Q puntuan gertatu da
- Gas-ihesa A puntuan gertatu da, robota B-an dagoen bitartean (hau da: fatxada erdian eta lurretik 5 metrora).

3.- LANTEGITIK IRTEERA

Jon, lana bukatuz gero, bere neska-laguna den Anaren bila doa autoz. Gaur Ana ohiko orduan baino apur bat lehenago atara da lanetik eta Jon normalean etortzen den bidetik oinez doa. Hogei minutu beranduago elkarrekin egiten dute topo. Ana autoan sartu eta euren helmugara ohikoa baino 6 minutu lehenago iristen dira. Zer ordutan atara da Ana bere lanpostutik? (Ana zein autoaren abiadura konstantetzat joko ditugu).

4. KUBO-DORREA

Artista batek 1 dm-ko aldea duten 14 kubo berdinez baliatuz irudian ikus daitekeen dorrea egin du. Dorrearen kanpoko azala margotu nahi du. Zenbat dm^2 margotu beharko du? Eta dorrea 5 pisukoa balitz? Eta dorreak “n” pisu balitu? Lortu dorreak dituen pisu kopuruaren araberako formula bat.

